

25 URTEKO ABIADA

2.000 urtea Alardearen eta Udalaren arteko harremana zalantzan



2000ko martxoan, alkateak Ordenantzaren behin betiko proposamena sinatu zuen. Honen arabera, ez zen Jenerala aukeratuko, ez zen bandera emango, ez zen Kabildo Sekularraren ondoan desfilatuko eta abiadaren ordutegia aldatuko zen, goizeko 10:00ak aldera. Laburbilduz, Alardearen eta Udalaren arteko harremana desagertzen da.

Irungo Alarde Ofizialaren Batzar Orokorrak gogor egin eta alardea duin antolatzeko zenbait baldintza jarri zizkion Udalari, hala nola, Alarde Ofiziala osorik ordaintzea, Ordenantzan ezarritako ordutegiak errespetatzea, Jenerala izendatzea eta herritarrek alarde honetan parte har zezaten dei publiko bat egitea.

Tira-bira askoren ostean, azkenik, Udaleko Bozeramaleen Batzordeak Alarde publikoaren Jenerala izendatzea erabaki zen, baita Udalak osorik finantzatzeko zuten ekitaldi ofiziala izatea ere. Puntu bakar batean iraun zuen desadostasunak: ordutegian. Barne Departamentuak finkatu zituen ordutegiak: desfile mistoa goizeko 8:00etan aterako zen eta desfile diskriminatzailea berriz, 9:15ean.

Erabakiek giroa nahasi eta indarkeria areagotu zuten, lehenbizi hirian entseatzeko zuten konpainia mistoen aurka eta gero jaietako kartela banatzen zuten pertsonen aurka. Herrizaingo Sailak ez zuen amore eman ordutegiaren banaketan, baina Alarde Ofizialak ertzain kopuru izugarri batek inguratua desfilatu behar izan zuen.